

Donostia, 2019ko abenduaren 17a

187/19 PRENTSA OHARRA

SAN TOMAS EGUNeko DBUS AUTOBUS ZERBITZUA

Abenduaren 21ean, larunbatean, San Tomas eguna dela eta, Dbus-ek autobus zerbitzu bereziak eskainiko ditu erabiltzaileak garraio publikoz jai gunera erosotasunez hurbil daitezen. Gauean ere zenbait zerbitzu luzatuko dira.

Boulevardeko geltokietan ez dira aldaketak egingo.

Gipuzkoa plaza eta Okendo plaza feria-gunearen parte izango direnez, bertako geltokiak lekualdatuko dira, **7:00etatik 21:00etara** gutxi gorabehera.

- **14.Bidebieta eta 37.Rodil-Zorroaga:** geltokia Askatasunaren Hiribidea 7an izango dute. Colón pasealekua (Kursaal geltokira eramango da), Askatasunaren Hiribidea 6 eta Gipuzkoa Plaza geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

- **16.Igeldo, 18.Seminarioa eta 19.Aiete-Bera Bera:** azkeneko geltokia Askatasunaren Hiribidea 20an izango dute (36 linearen geltokia, Txurruka kalearekin duen kale-kantoian). Okendo eta Gipuzkoa Plaza geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

9:00etik 21:00etara gutxi gorabehera honako aldaketa hauek egingo dira:

- **5.Benta-Berri, 25.B-Berri-Añorga, 21.Mutualitateak-Anoeta, 26.Amara-Martutene eta 28. Amara-Ospitaleak:** Argentinako Errepublikaren pasealekutik Boulevarderantz joango dira. Okendo kaleko geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

- **8.Gros-Intxaurrondo:** Galtzada Nagusitik-Zurriolatik joango da Boulevarderantz. Colón pasealekua eta Askatasunaren Hiribidea 6 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

- **9.Egia-Intxaurrondo:** Argentinako Errepublikaren pasealekutik Boulevarderantz joango da. Askatasunaren Hiribidea 6 geltokia zerbitzurik gabe geratuko da.

Halaber, gauean **ondorengo lineen zerbitzuak eskainiko dira:**

- **5.Benta Berri:** Boulevardetik 22:10ean, 22:20ean, 22:30ean eta 23:00etan.

- **9.Egia-Intxaurrondo:** Boulevardetik 22:10ean, 22:30ean, 23:00etan, 23:30ean eta 00:00etan (Zubiaurretik).

- **13.Altza:** Boulevardetik 22:30ean (Buenavistatik), 22:40ean, 22:50ean, 23:00etan (Buenavistatik), 23:30ean (Buenavistatik), 23:45ean eta 00:00etan (Juan XXIII.etik eta Buenavistatik).
- **14. Bidebieta:** Gipuzkoa Plazatik 22:00etan, 22:18ean; Boulevardetik 22:45ean, 23:15ean, 23:30ean eta 23:50ean Zubiaurretik.
- **18.Seminarioa:** Gipuzkoa plazatik 22:10ean, 23:00etan eta 23:30ean.
- **19.Aiete-Bera Bera:** Gipuzkoa plazatik 22:00etan, 22:20ean, 23:00etan, 23:30ean eta 00:00etan.
- **23.Errondo-Puio:** Gipuzkoa plazatik 23:15ean eta 23:45ean.
- **25.Benta Berri-Añorga:** Boulevardetik 22:00etan, 22:45ean (Beriotik), 23:15ean, 23:30ean eta 00:00etan (Beriotik).
- **26.Amara-Martutene:** Boulevardetik 22:24ean, 22:45ean, 23:00etan, 23:30ean eta 00:00etan.
- **28.Amara-Ospitaleak:** Boulevardetik 22:32ean eta 23:15ean.

Era berean, **Gautxori zerbitzuak** egongo dira Boulevardetik auzoetara:

- **B1, B2, B3 eta B6 lineak:** irteerak 00:30ean, 1:00etan, 1:30ean, 2:00etan, 2:30ean, 3:00etan, 3:30ean eta 4:00etan.
- **B4 linea:** irteerak 00:15ean, 00:30ean, 1:00etan, 1:30ean, 2:00etan, 2:30ean, 3:00etan, 3:30ean eta 4:00etan.
- **B8, B9 eta B10 lineak:** irteerak 00:45ean, 1:15ean, 1:45ean, 2:15ean, 2:45ean, 3:15ean eta 3:45ean.

Jende guztia San Tomas egunean Dbus-en autobusak erabiltzera animatu nahi dugu, garraio jasangarri eta eraginkorra.

Gozatu jaiaz lasaitasun osoz, mugitu Dbusekin!

Informazio gehiagorako, kontsultatu gure webgunea www.dbus.eus, edo deitu 943 000 200 telefonora.